

# AUBIXA ATERPETXEA:

## Umeak eta euskara babesteko aterpea

“**A**ubixan bat, bi, hiru, Aubixan, lau, bost, sei eta Azazpi...”. Horrela hasten zen Aubixako kantua. Ikastolako irakaslea izan zen Antton Aranburuk asmatu zuen. Marrazki bizidunetako Heidiren musika lagun hartu, eta hamabira arte kontaktzen eta kantatzen zuten Aubixara joaten ziren umeek eta begiraleek. Izan ere, hasierako urteetan 12 egun pasatzera joaten ziren umeak Aubixara.

San Juanetan hasi eta irailean ikasturtea hasi bitartean izaten ziren Aubixako txandak. 12 eguneko 4 txanda, guztira.

1973an hasi ziren ikastolako umeak Aubixara igotzen. Baserria hutsik zegoen eta Elgoibarko Izarrak alokatzea erabaki zuen udaleku moduan aprobetxatzeko. Helburua ikastolatik kanpo ere umeei euskaraz jarduteko eta bizitzeko espazioak eskaintzea zen. Izan ere, euskara etxe gutxi batzuetan eta ikastolan bakarrik entzuten zen, eta esparru berriak irabazi nahi ziren euskararentzat.

*Aubixa egokitze behar zen dirua, besteak beste, kartoia eta papera salduz lortu zen. Kamioi bat hartu eta gurasoak kalera irteten ziren papera biltzera.*

Eta zein esparru garrantzitsuagoa euskararentzat aisialdia baino?

Aisialdia lagun berriak egiteko esparrua da, jolasteko, pertsona modura garatzeko. Eta hori dena euskaraz egitea garrantzitsua zela iritzi zioten orduko arduradunek. Ez zebiltzan oker.

Lan handia izan zen Aubixa udaleku moduan prestatzea. Hamaika lagunek makina bat izerdi bota zuen Aubixa behar bezala prestatzeko.

Eta nondik atera zen Aubixa prestatzeko dirua? Beste diru batzuk ere izango ziren, baina diru mordo bat era bitxian lortu zen: kartoia bilduz eta salduz, hain zuzen ere. Kamioi bat hartu eta kalera irteten ziren kartoia biltzera. Gero, bildutakoa saldu eta handik ateratako diruarekin egin zen Aubixako obra. Zelebrea, ezta?

Aurretik esan bezala, Aubixa ikastolako umeentzat zen. Begirale moduan, berriz, ikastolako irakasleak eta herriko gazteak joaten ziren. Denak ere borondatezko lana egitera.

73an hasitako historiak segida du oraindik ere. Elgoibarko Izarrak udalekuak antolatzen ditu Aubixan, baina gaur egun herriko haur guztiei zabaldutako eskaintza izaten da.



Aubixako Joxepa, begiraleak, umeak eta 12 egun zoragarri aurretik.

1973an hasi ziren  
ikastolako umeak  
Aubixara joaten.



Aubixa baserria konpontzeko, kartoia eta papera bildu eta saltzen zuten gurasoek.